

Bizkaiko Foruan jaioa 1942-ko azaroaren 24-an. Frantziakotarra. *Jakin-en* zuzendaria. *Egan*, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Elgar* eta beste zenbait aldizkaritan eman ditu bere lanak.

EHUN URTE GANDHI JAIO ZELA

Mohandas Gandhi zuen izena. Mahatma Gandhi deitzen zioten.

Gizontxo, argal, ezgauza, belarri handi eta begi txiki, izara antzeko soinekoz erdi-estaltzen zuen bere gorputza Gandhik. Munduko agintari eta nagusiekin ikusten zuen jendeak fotografietan. Nor da hau? Fakir bat dirudi. Indiako agintaria zen. Indiakoa!

Eta Indian, 500 miloi lagun bizi da.

Eta Indian, 782 hizkuntza eta hizkelgi mintzitzen da.

Eta Indian, 50 kastatik gora dago.

Herri sakabanatu eta ugaritsu honen aurrean zer proposatuko ote du bihotz handiko «gizontxo» honek? Erantzuna: «Sarvodaya» eta «Satyagrha».

«*Gandhismoa eta honek dakarrena, hori dena aurretik kendu eta zanpatu egin behar dugu*», esan zuen Churchill-ek.

Eta haren jaiotzearen ehungarren urtea ospatzean, Paulo VI-gnak esan du: «*Indiak harro egon behar du, eta arrazoiz, zuzendari hau euki duelako*».

Gandhi jaio zela, ehun urte igaro da urriaren 2-an. Ehun urteko gizona dugu, bada, Gandhi, nahiz-eta burubero batek, traizioz, haren gorputzari heriotzea eman.

Gandhi bizi da, bai. Gandhi aipatu eta indarkarik-eza burura etorri, dena da bat. Berak diosku: «*Biolentziarik-eza, gizonen legea da. Biolentzia, berriz, animalien legea*». «Maita ezak belea, aterako dik begia», dio esaera batek. Gauza bera.

Biolentzia bai, biolentzia ez: honetan ere ba da eztabaida. Eta ene iduriko, hauspoemaile eta aupatzaile gehiago ditu, gaur, biolentziak, indarkarik-ezak baino. Biolentziarik gabe ez goazkela inora, pentsatzen da.

Baina kontu!

Biolentziarik-eza eta beldurra, bi dira, ez bat. Oilokeria eta indarkarik-eza ez ditu Gandhik ezkondu. Ezkon-ezinak dira, gainera Gandhiren ustez. Zeren-eta, surik ez den lekuan kerik ez den bezalaxe, «*biolentziarik-ezak, egiazko indar bilaka dadin, izpiritutik behar duelaki jaio*». Biolentziarik-eza, indar egile eta eragile bat da, benetako gudu bat da, maitasunetik ernea. Gaitzaren kontra doa, ez gaiztoaren kontra.

Pausu nagusi bi eman du Gandhik arazo honetan, hain zuzen mugimendu bi martxan jarriaz:

«Sarvodaya» mugimendua, elkartasun, batasun, anaitasuna eta elkar laguntzearen kontzientzia sortzeko.

«Satyagraha» da bigarrena, lege okerrei jaramonik ez egitea, gobernu zanpatzaile batekin batere ez kolaboratzea, hortik gartzela nahiz heriotzea etorriarren.

1921-ean, lehenengoz gartzelaratu zutenean, ingeles menderatzaile haiei esan ziena datorkit gogora, alegia, «*zuen adiskide jarraitzen dut, bai, baina erre-beldetzat jo nazazue*».

Gandhiren prestutasun honek ez du zerikusirik nagikeriarekin, ez txepelkeriarekin. Ez-eta koldarke-riarekin.

Hobeto dio berak: «*Biolentziarik-ezak ez du esan nahi, gaitzaren aurka joateko modu guztiak ukatzen direnik. Ez-eta pentsatu ere. Biolentziarik-eza, nik ulertzen dudan moduan behintzat, "talion" legea bera baino gudu bizi eta benetakoagoa da, baina moral mailan*».

Talion legeak, «*begia begiaren truk*» dio.

Eta Gandhik, «*maitasuna gaitzaren truk*».

MARTIN UGALDE

Gipuzkoako Andoainen jaioa 1921-eko azaroaren 11-n. Kasetalaria; Chicagon egin zuen periodismo karre-
ra. Erderaz zenbait liburun egilea dugu, sari aipaga-
rriak ere izan ditu, eta urte askotan Caracas-ko Creole
Petroleum Corporation-en «El Farol» aldizkariaren zu-
zendaria izana da. Gaur, *Zeruko Argia*-ren laguntzaile
azkarra. Euskeraz idatzi dituen lanak: *Iltzailleak* (1961),
kontaerak; *Ama gaxo dago* (1963) eta *Gurpegin aspaldi*
gertatua (1965), antzerkiak; eta azkenik *Umeentzako*
kontuak (1966), haurrentzako ipui sorta. Erderazko li-
buruetan euskerari buruzko aipagarriena: *Unamuno y*
el vascuence (1966) saiakera.